

## INDEPENDENTZIA

Zaila da jakiten Euskal Herrian zenbat garen independentzia politikoa, hots, euskal estatu independentea nahi dugunak eta zaila izango da independentzia gauzatu daitekeen aukera erreal gisa aurkezten den arte. Nolanahi ere, independentziazaleak baino gutxiago dira, nik uste, pertsona independenteak. Pertsona independenteen kontuak, izan ere, ez dauka independentzia zaletasun politikoarekin zerikusi handirik, urritasun erlatiboaz aparte.

Pertsona independentea iritzian da, hasteko, independentea. Informazio eta komunikabideetatik iristen zaion mezua galbahetik pasatzen du. Iritzi propioa osatzen du, iritzigile ofizialena behar haina soilik kontuan hartuz. Gehiengoaren, gobernuaren, alderdiaren, erakundearen, lagunaren eta etsaien iritziaren gainetik (edo azpitik; alde edo kontra) beti dauka berea. Sen kritikoa izatea esaten diote batzuk independentzia gaitasun honi.

Mundu mailako masifikazio eta uniformizazio garaioan ez da harritzekoa iritzi askeko pertsonak nekez topatzea. Urriagoak dira, nolahi ere, iritzi kritikoa izanda, publikoan adierazteko urratsa egiten dutenak. Are urriago, esango nuke nik, euskal hizkuntza eta kulturaren munduan. Francoren garaiko klandestinitatetik espainiar konstituzioko erakunde publikoen dirulaguntzekiko murrizketa pasatu da zuzenean mundu hau hegoaldean. Eta, jakina, ekonomikoki morroi denak ezin ahotsik altza, badaezpada ere. Zergatik iritzi kritikoa eman, ezer irabazi ez eta asko galtzeko arriskua badauka? Gobernuari kritika egiten dionak negozioarekin duelako izango da, editorial honi kritika egiten dionak beste horretan izango du interesa... uste du maltzur askok. Ekintzarik onena eta arrazoizkoena irabazi handienak ematen dituen delak dioten etika eta filosofia arbuiatzen ez ditugun bitartean, hori ere ez da harritzekoa izango. Horregatik da hain pozgarria iritzi independente kritikoa irakurtzea. Horregatik da hain sana fikiziotik kanpo ere *agirretarrak* badirela egiaztatzea.